

NATOk hasi du erasoak

Indar aliatuek arratsaldeko 20:00etan ekin zioten Jugoslaviaren kontrako aire erasoei

■ **Pristinako eta Belgradeko helburu militarren eta aire defentsaren kontra bideratu dituzte aire erasoak**

■ **Jugoslaviak 20 bat gune bonbardatu dituztela dio, «baina aire erasoen kontrako defentsa ez dutela ukitu»**

■ **EEBBek eta aliatuek diote Milosevicek ez duela beste aukerarik utzi, eta hark dio zuzen jokatu duela**

■ **Errusiak bere gaitzespena azaldu du eta NATOrekiko harremanak aztertuko dituela jakinarazi**



Gerra hegazkin bat Avianoko basetik aireratzen eta ondoan Pristinako bonbardaketaren irudia.

FRANCO DEBERNARDI / AP

Geresta auzia

Pistola gorpuaren ezker aldean agertu izanak kolokan jarri du suizidioaren bertsioa, tiroa eskuinetik egin baitzen • 7



LUIS TEJIDO / EFE

Egibar, Irazusta eta Otegi eman zuten mobilizazioen berri.

Lizarra-Garazi

Alderdi eta sindikatuek manifestazio eta lanuzterako deia egin dute, jarrera eraikitzailea bultzatzeko • 6

Pinochet auzia

Lorden Ganberak immunitatea ukatu egin dio Pinocheti, baina Espainiara estraditatzeko arrazoiak ere murriztu ditu • 30-32